

KONTAKTUAK	
DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	<p>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</p> <p>EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefona: 945 017 300 Helbide elektronikoa: ejie@ejie.eus Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: dpd@ejie.eus</p>
Helburua	<p>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona juridiko batean zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoei buruzko informazio pertsonala kudeatzea, eragindako pertsonak lan egiten duen pertsona juridikoarekin edozein motatako harremanak izateko.
Legitimazioa	<p>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</p> <p>Honako lege hauetan oinarri hartuta tratatu ditugu zure datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • DBEO: 6.1.f) Tratamendua beharrezkoa da EJIE SAK lortu nahi dituen interes legitimoak betetzeko.
Hartzaileak	<p>Zein hartzailerik jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datu pertsonalak kudeatzeko ez dago zertan datuok hirugarrenei laga, EJIE SAK bete behar dituen legezko betebeharrak betetzeko ez bada. • Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horiek nazioartean transferituko direnik.
Datuak gordetzea	<p>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragindako pertsonak lan egiten duen pertsona juridikoarekin edozein motatako harremana duen bitartean gordeko ditugu datuak.
Eskubideak	<p>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den. • Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako.

	<ul style="list-style-type: none">• Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu.• Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arazoien ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arazoia ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada.• Interesdunek EJIE SAr eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko.• Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute lopd-ejje@ejje.eus honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta.• Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, www.aepd.es orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.
SEGURTASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezen aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.